

LEGEZKO ORDEZKARIAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEA

_____ jaunak/andreak, _____ NAN zenbakia duenak,
_____ entitatearen (haren datuak eskaeran jaso dira) izenean eta hura ordezkatzuz,
bere erantzukizunpean adierazi du:

- Deialdiaren araudia ezagutzen du eta bertan jasotako betekizunak betetzen ditu.
- Konpromisoa hartzen du diru-laguntzaren baldintzak betetzeko, hots, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua arabera onuradun izatea eragozten duen ezein inguruabarretan ez egoteko.
- Ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzea dakarren zehapen penal edo administratiborik eta ez dago sartuta horretarako desgaitzen duten legezko debekuetan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarriako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatzen direnak barne.
- Ekonomia-jarduera Bilbon dagoen zentro batean garatzen da.
- Diru laguntza pertsona batentzako eskatu da, eta hark ez du tokiko entitateengandik diru-laguntzarik jaso beste deialdi batzuetan.
- Deialdian araututako laguntzak eskatzen diren kontratazioaren xede den pertsona edo pertsonak ez dira ezkontide, ondorengo edo enpresaburuarekin, enpresa-kontrola daukatenekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo enpresa eskatzaileko administrazio-organoetako kideekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duen bestelako senide, ez administrazio-organoetako kide ere.
- Laguntza ekonomikoaren eskaeran adierazitako kontratazioa edo kontratazioak egiteko konpromisoa hartzen du, eskaeran jasotako baldintzetan. Gainera, aplikatu beharreko indarreko lan-araudia eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko araudia beteko ditu kontrataziootan.
- Ez du jaso eta ez du jasotzen kontzeptu edo xede bererako inolako diru-laguntza edo laguntzarik beste Administrazio batetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik, Gizarte Segurantzaren hobariak kanpo.
- Egunean dauzka administrazio publikoekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Adierazpen honen xede diren alderdiekin zerikusia duen edozein gorabehera berariaz eta idatziz adierazteko konpromisoa hartzen du.

Bilbon, _____ ko _____ aren _____ (e)(a)n

_____ jaunak/andreak, enpresa eskatzailearen legezko ordezkaria den aldetik, ziurtatu egin du eskabidean eta horrekin batera aurkeztu den dokumentazioan jaso diren datu guztiak benetakoak direla.

Sin.: _____
(Legezko ordezkariaren sinadura originala eta enpresaren zigilua)